



GOBERNU BATZARRA

2022.02.08

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Xabier Balerdi Tolosa
Xarles Iturbe Pasaban
Begoña Tolosa Mendia
Jose M^a Villanueva Telleria**

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaitzako teknikaria:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita biko otsailaren zortzian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2022ko urtarrilaren 18koa.
2. «15.2 Zubizarreta» azpiesparruaren garapenerako P.J.I.Z. eta J.P.A jaun-andreekin sinatutako hirigintza-hitzarmena azkendutzat emateko prozedura abiaraztea eta entzunaldi epea irekitzea.
3. «15.2 Zubizarreta» azpiesparruaren garapenerako M.J.G.A., M.I.G.A., J.G.A. eta I.G.A. eta M.K.A. eta M.I.K.U. eta O.K.U. jaun-andreekin sinatutako hirigintza-hitzarmena azkendutzat emateko prozedura abiaraztea eta entzunaldi epea irekitzea.
4. Dekretu hauen berri ematea:
 - 2022/67 Dekretua: 2021/54 faktura zerrenda eta 2021/55 faktura zerrendak.
 - 2022/78 Dekretua 2021/56 faktura zerrenda.
 - 2022/134 Dekretua 2021/57 faktura zerrenda eta 2021/58 faktura zerrendak.



1. AKTA HAU ONARTZEA: 2022KO URTARRILAREN 18KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2022ko urtarrilaren 18an egindako ohiko batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. «15.2 ZUBIZARRETA» AZPIESPARRUAREN GARAPENERAKO P.I.Z. ETA J.P.A JAUN-ANDREEKIN SINATUTAKO HIRIGINTZA-HITZARMENA AZKENDUTZAT EMATEKO PROZEDURA ABIARAZTEA ETA ENTZUNALDI EPEA IREKITZEA.

Esparrua:	15. Bidebieta-Izaskun-Iparragirre-Kondeneako aldapa (bakoitiak)
Azpiesparrua:	15.2 Zubizarreta
Sinatzaileak:	P.I.Z eta J.P.A
Sinatze data:	2008/07/21
Espedienteak:	B.5.1. - 15.2/2008.0002 – 437.A.A 2022H1100002
Erlazionatutako espedientea:	2019H1050002 hiri-antolamenduko plan berezia

AURREKARIAK

Tolosako Udalaren eta P.I.Z eta J.P.A jaun-andreen (jabeak) arteko hitzarmen proposamena Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren izapidetze-fasean sortu zen eta, hala, 2008ko martxoaren 18an, Tolosako Udalbatzak osoko bilkuran hasierako onspena eman zion, eta ondoren, jendaurrean jarri zuen (2008/05/08 GAO 87 zk.).

Informazio publikoko aldiaren ez zen alegaziorik aurkeztu eta, hortaz, aipatutako hitzarmenari behin betiko onspena eman zitzaion. Honela, 2008ko uztailaren 7an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (129 zk.) argitaratu zen eta urte bereko uztailaren 21ean, aipatutako bi aldeek hitzarmena sinatu zuten.

Hitzarmenaren bidez jarduketaren hirigintza-araubidea zehaztu zen, plan orokorraren dokumentuan kontuan hartzeko.

Hala, 2009ko otsailaren 3an, Ohiko Osoko Bilkurak behin betiko onspena eman zion Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorri, eta hitzarmenean adostutako antolamendua aurreikuspenetan sartu zuten. 2009ko martxoaren 31n, bere hirigintza-araudia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (60 zk.) argitaratu zen.

HAPON jasotako 15.2 azpiesparruko arau partikularrak bere egiten ditu hitzarmenean hitzartutako zehaztapenak, eta erabat betetzen du itundutako hirigintza-araubidea.

2020ko abenduaren 29an, Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onspena eman zion «15. Bidebieta - Izaskun - Iparragirre - Kondeneako aldapa (bakoitiak)» hirigintza esparruko «15.2 Zubizarreta» azpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziari.



Hiri Antolamenduko Plan Berezia adierazten denez, xedea honako hau da:

“Se ha estimado conveniente, por lo tanto, plantear una modificación ordenación pormenorizada y, en consecuencia, la redacción de un Plan Especial de Ordenación Urbana, cuyo objetivo sería el de completar o reajustar las alineaciones y rasantes ordenando los volúmenes edificables, es decir, repartir la edificabilidad en la parcela, sin contradecir al planeamiento de orden superior.

(...)

El objetivo del presente documento es, por lo tanto, modificar la ordenación prevista por el Plan General y posibilitar de esta manera el desarrollo inmobiliario del ámbito.”

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Hirigintza-hitzarmenen izaera eta aplikazio-araubide juridikoa

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko zazpigarren xedapen gehigarrian arautzen dira hirigintza-hitzarmenak, eta aurreikusten dira, besteak beste, toki-entitateek hitzarmenak egiteko ahalmena, elkartuta edo banan-banan, pertsona publikoekin edo pribatuekin, pertsona horiek laguntza eman dezaten hirigintza-jarduera modurik onenean eta eraginkorrean garatzeko.

Aipatutako xedapenean, hirigintza-hitzarmenek izaera juridiko-administratiboa dutela azpimarratzeaz gain, kontratu izaera ere badutela ondorioztatzen da honakoa adieraziz:

“Akordioa bete-betean dagoela iritzi zaio eskaintza egin eta hitzarmenaren gaia onartzen denean, nahiz eta gainerako baldintza formalak ere bete beharrekoak izango diren”.

Argi islatzen da, ere, hitzarmenen izaera administratiboa zein kontratuzkoa Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 25.1.b) artikuluan:

“1. Administrazio-izaera izango dute kontratu hauek, administrazio publiko batek egiten baldin baditu:

(...) b) Lege batez horrela berariaz deklaraturakoak, bai eta aurreko letran adierazitakoak beste objektu bat duten beste batzuk ere, Administrazioarentzat izaera berezia daukatena, Administrazio kontratatzailearen berariazko igorpen nahiz trafikoari lotuta daudelako, edo Administrazioaren berariazko eskumeneko helburu publikoren bati zuzenean edo berehala erantzuteko direlako”.

Hirigintzako hitzarmenen kasuan, eztaba daezina da erakunde publikoek funtzio publiko bat garatzen dutela beren eskumen eskusiboko hirigintza-plangintzarako ahala erabiliz.

Hitzarmenen aplikazio-araubide juridikoari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 25.2 artikuluan adierazten denez, administrazio-kontratuen prestaketa, adjudikatzea, ondorioak, aldaketa eta azkentzea lege horren eta bera garatzeko xedapenean ezarritakoaren arabera egingo dira; eta, horien ordezkotzat modura, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, adierazitako artikulua berariaz adierazten du 25.1.b) artikuluan aipatzen diren administrazio-kontratu bereziei (horrelakoak dira hirigintza-hitzarmenak) beren arau espezifikoak aplikatuko zaizkiela lehenbizi.



II. Administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriari buruzko legeriako administrazio-hitzarmenak

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko atariko tituluan (47-53 artikulua), administrazio-hitzarmenen araubide osoa garatzen da eta gutxieneko edukia, motak, iraupena eta azkentzea finkatzen dira.

Kontuan izanik aipatutako Legearen 47. artikulua, hitzarmenek honako ezaugarriak dituzte: 1) administrazio publikoen eta zuzenbide pribatuko subjektu baten arteko akordioak dira, xede komun bat lortze aldera egintzakoak; 2) ezin hartu ditzakete xedetzat kontratuen berezko prestazioak; eta, 3) SPKLren arabera araubide juridikoa daukate.

Hitzarmenen iraupenari dagokionez, berriz, 40/2015 Legeko 49.h) artikulua honako hau adierazten du:

"Hitzarmenaren indarraldia, erregela hauek kontuan hartuta:

1-a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeago aurreikusten ez den arau bidez.

2-a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea".

Aipatutako horiez gain, 40/2015 Legeko zortzigarren xedapen gehigarrian adierazten da administrazio publikoek sinatutako hitzarmenak hiru urteko epean egokitu behar direla, legea indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita (azken xedapenetako hemezortzigarrenaren arabera, 2015eko urriaren 2an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

Baina hitzarmen administratiboan epeari buruzko auzia ez da hor amaitzen, legegileak zortzigarren xedapen gehigarrian bertan ezartzen baitu 40/2015 Legea "automatikoki" egokitzeko beharra:

"Hala ere, hitzarmenaren indarraldiari dagokionez, automatikoki egokituko dira, 49.h).1.a artikuluan aurreikusitako erregelak zuzenean aplikatuz, indarraldirik zehaztuta ez duten hitzarmenak edo indarraldi bat zehaztuta edukita ere lege hau indarrean jartzean iraupen mugagabeko isilbidezko luzapen bat ezarrita duten hitzarmenak. Kasu horietan, hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, lege hau indarrean jartzen denetik aurrera".

Hortaz, antzeman daitekeenez, lau urteko epea ezarri zaie Legea indarrean sartu aurretik sinatutako hitzarmenei, horien iraupena zehaztu gabe badago. Beraz, aintzat harturik orain arte adierazitakoa, esan daiteke 40/2015 Legeak, 49.h) artikulua bidez, hitzarmenen iraupena lau urtean ezartzen duela, nahiz eta jarraian zehazten den arau bidez epe luzeagoa aurreikusi ahal izango dela, eta, era berean, epe bera luzatu daitekeela beste hainbeste. Ondorioz, adieraz daiteke hitzarmenaren indarraldiaren gehieneko epea arau bidez ezarrita dagoen kasuetan, 40/2015 Legearen denbora-muga (lau urte) subsidiarioa izango dela.



III. 40/2015 Legearen aplikagarritasuna 15.2 azpiesparruko hirigintza-hitzarmenean.

Kontuan izanik aurreko puntuan adierazitakoa, beharrezkoa da zehaztea ea udalak 2008. urtean 15.2 azpiesparruko hirigintza-antolamendurako sinatutako hitzarmena 40/2015 Legeak ezarritako indarraldi-araubide mugatuaren eraginpean ote dagoen.

Honela, aintzat harturik hitzarmenaren izaerari eta azkentzearen araubide juridikoari buruz azaldutakoa, ondoriozta daiteke hitzarmena azkendutzat jotzeko zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak betetzen direla, indarraldia amaitu bai baita, eta hori hitzarmena suntsiarazteko arrazoia da, lege beraren 51. artikulua araber.

Ez da uste beste interpretazio bat egin daitekeenik; izan ere, hirigintzako araudiak eta kontratu-araudiak ez dute epeari buruzko inolako preskripziorik ezartzen, eta hitzarmenak berak ere ez; beraz, 40/2015 Legeak bete behar du hutsunea.

IV. Hirigintzako hitzarmena azkendutzat emateko prozedura abiarazteko organo eskuduna.

Plangintzako hitzarmena izanik, hitzarmena azkendutzat ematea udalbatzari dagokio, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 22.2 c. artikuluan ezarritakoaren araber.

Hala ere, lehenik, prozedura abiarazi eta entzunaldi epea ireki behar da, eta hori Alkatetzaren eskumena da 7/1985 Legearen 21.1.j artikuluan ezarritakoaren araber; Tolosako Udalari dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzarrari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuaren bidez.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarra izango da organo eskuduna hirigintzako hitzarmena azkendutzat emateko prozedura abiarazteko.

AZTERKETA JURIDIKOA

Hitzarmena azkentzeko, administrazio-prozedura bat izapidetu behar da, eta interesdunari entzun egin behar zaio ebazteko. Betebehar hori 39/2015 Legean argi aipatzen da, adieraziz ezinbestekoa dela interesdunari entzunaldia ematea administrazio-egintzen bidez eta, hala, 53. artikuluan barnebiltzen da interesdunen eskubideen artean. Hori dela eta, 39/2015 Legeko 82. artikulua berariaz agintzen du ebazpena eman aurretik entzuna izateko eskubidea:

“1. Prozeduren instrukzioa amaitutakoan, eta ebazpen-proposamena idatzi aurretik, haien berri emango zaie interesdunari edo, hala badagokio, haien ordezkariari, kontuan harturik abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitako mugapenak”.

P.I.Z eta J.P.A.k edo, hala badakio, haien ordezkariak, interesdun izaera daukate (39/2015 Legea – 4.1.b) artikulua) eta, hortaz, 2008. urtean sinatutako hitzarmenaren inguruan erabakiren bat hartuz gero, nahitaezkoa da entzunaldia ematea.

Bestalde, ebazpenean beharrezkoa izango da adieraztea hirigintza-hitzarmena azkentzeak zer ondorio izango dituen. Honela, Tolosako Udalak hartutako hirigintza-konpromisoa indarrean dagoen HAPOn erabat jasota dagoenez eta, 15.2 azpiesparrua benetan eraldatzeko prozesuari ekin zaionez izapidetze-fasean dagoen antolamendu xehatu berri baten bidez, adierazi behar da hiri-lurzoruko tokiko zuzkidurak lagatzeko betebeharrak onesten den antolamendu xehatuan ezarritakoak izango direla eta aprobetxamenduaren % 15eko lagapena kargarik gabea izango dela 2/2006 Legeak



xedatutakoaren arabera. Horrekin batera, beharrezkoa da aipatzea hitzarmenaren laugarren xedapenean «17 *Apatta*» hirigintza-eremuan sartutako P.I.Z. eta J.P.A jaun-andreena den lursailean (San Blas auzoko 43, 47 eta 53 zenbakietako eraikinen artean dagoena) aurreikusitako urbanizazio obra egin denez, lursail hori Tolosako Udalari laga behar zaiola.

Aurreko guztia ikusita, kontuan hartuz espedientean jasota dauden txosten juridikoak, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Prozedura abiaraztea «15.2 *Zubizarreta*» azpiesparruaren garapenerako P.J.I.Z eta J.P.A jaun-andreekin sinatutako hirigintzako hitzarmena, indarraldia igarotzeagatik, azkendutzat emateko. Ebazpen honetatik kanpo uztea 4. xedapenean hitzartutakoa. Izan ere, San Blas auzoko 43, 47 eta 53 zenbakietako lursailetan aurreikusitako urbanizazio obra egin denez, lursail horren lagapena Tolosako Udalari egingo zaio eskritura publikoan, hitzarmenean jasotakoa exekutatzuz.

BIGARRENA.- Hamabost eguneko entzunaldia ematea P.J.I.Z eta J.P.A. jaun-andreei edo, hala badakio, haien ordezkariari, egoki irizten diren alegazioak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA.- Adieraztea hitzarmena azkendutzat ematearen ondorioz 15.2 azpiesparruko antolamenduko zehaztapenak gauzatzeak jarduketa integratuaren betebeharrak gisa ekarriko duela plan bereziak aurreikusten dituen hiri-lurzoruko tokiko zuzkidurak lagatzea eta, bestetik, aprobetxamenduaren % 15eko lagapena kargarik gabea izango dela 2/2006 Legeak xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA.- Erabaki horren berri ematea interesdunei eta Hirigintza Azpisailari.

3. «15.2 ZUBIZARRETA» AZPIESPARRUAREN GARAPENERAKO M.J.G.A., M.I.G.A., J.G.A. ETA I.G.A. ETA M.K.A. ETA M.I.K.U. ETA O.K.U. JAUN-ANDREEKIN SINATUTAKO HIRIGINTZA-HITZARMENA AZKENDUTZAT EMATEKO PROZEDURA ABIARAZTEA ETA ENTZUNALDI EPEA IREKITZEA.

Esparrua: 15. Bidebieta-Izaskun-Iparragirre-Kondeneako Aldapa (bakoitiak)

Azpiesparrua: 15.2 Zubizarreta



Sinatzaileak: M.J.G.A., M.I.G.A., J.G.A., I.G.A., M.K.A., M.I.K.U. eta M.O.K.U.
Sinatze data: 2008/11/12
Espedienteak: B.5.1. - 15.2/2008.0001 – 437.A.A
2022H1100001
**Erlazionatutako
espedienteak:** 2019H1050002 hiri-antolamenduko plan berezia

AURREKARIAK

Tolosako Udalaren eta M.J.G.A., M.I.G.A., J.G.A., I.G.A., M.K.A., M.I.K.U. eta M.O.K.U. jaun-andreen (jabeak) arteko hitzarmen proposamena Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren izapidetze-fasean sortu zen eta, hala, 2008ko martxoaren 18an, Tolosako Udalbatzak osoko bilkuran hasierako onespena eman zion, eta ondoren, jendaurrean jarri zuen.

Informazio publikoko aldi alegazioak aurkeztu ziren baina, beharrezko txostenak egin ondoren, Tolosako Udalbatzak 2008ko irailaren 30ean egindako bilkuran egindako alegazioak ebatzi, eta aipatutako hitzarmenari behin betiko onespena eman zitzaion. Honela, 2008ko urriaren 22an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (203 zk.) argitaratu zen eta urte bereko azaroaren 12an aipatutako aldeek hitzarmena sinatu zuten.

Hitzarmenaren bidez jarduketaren hirigintza-araubidea zehaztu zen, plan orokorraren dokumentuan kontuan hartzeko.

Hala, 2009ko otsailaren 3an, Ohiko Osoko Bilkurak behin betiko onespena eman zion Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorriari, eta hitzarmenean adostutako antolamendua aurreikuspenetan sartu zuten. 2009ko martxoaren 31n, bere hirigintza-araudia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (60 zk.) argitaratu zen.

HAPOn jasotako 15.2 azpiesparruko arau partikularrak bere egiten ditu hitzarmenean hitzartutako zehaztapenak, eta erabat betetzen du itundutako hirigintza-araubidea.

2020ko abenduaren 29an, Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespena eman zion «15. Bidebieta - Izaskun - Iparragirre - Kondeaneko aldapa (bakoitiak)» hirigintza esparruko «15.2 Zubizarreta» azpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziari.

Hiri Antolamenduko Plan Berezian adierazten denez, xedea honako hau da:

“Se ha estimado conveniente, por lo tanto, plantear una modificación ordenación pormenorizada y, en consecuencia, la redacción de un Plan Especial de Ordenación Urbana, cuyo objetivo sería el de completar o reajustar las alineaciones y rasantes ordenando los volúmenes edificables, es decir, repartir la edificabilidad en la parcela, sin contradecir al planeamiento de orden superior.

(...)

El objetivo del presente documento es, por lo tanto, modificar la ordenación prevista por el Plan General y posibilitar de esta manera el desarrollo inmobiliario del ámbito.”



ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Hirigintza-hitzarmenen izaera eta aplikazio-araubide juridikoa

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko zazpigarren xedapen gehigarrian arautzen dira hirigintza-hitzarmenak, aurreikusiz, besteak beste, toki-entitateek hitzarmenak egiteko ahalmena, elkartuta edo banan-banan, pertsona publikoekin edo pribatuekin, pertsona horiek laguntza eman dezaten hirigintza-jarduera modurik onenean eta eraginkorrean garatzeko.

Aipatutako xedapenean, hirigintza-hitzarmenek izaera juridiko-administratiboa dutela azpimarratzeaz gain, kontratu izaera ere badutela ondorioztatzen da honako hau adieraziz:

“Akordioa bete-betean dagoela iritzi zaio eskaintza egin eta hitzarmenaren gaia onartzen denean, nahiz eta gainerako baldintza formalak ere bete beharrekoak izango diren”.

Argi islatzen da ere hitzarmenen izaera administratiboa zein kontratuzkoa Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 25.1.b) artikuluan:

“1. Administrazio-izaera izango dute kontratu hauek, administrazio publiko batek egiten baldin baditu:

(...) b) Lege batez horrela berariaz deklaraturakoak, bai eta aurreko letran adierazitakoak beste objektu bat duten beste batzuk ere, Administrazioarentzat izaera berezia daukatena, Administrazio kontratatzailearen berariazko igorpen nahiz trafikoari lotuta daudelako, edo Administrazioaren berariazko eskumeneko helburu publikoren bati zuzenean edo berehala erantzuteko direlako”.

Hirigintzako hitzarmenen kasuan, eztabaida ezina da erakunde publikoek funtzio publiko bat garatzen dutela beren eskumen eskusiboko hirigintza-plangintzarako ahala erabiliz.

Hitzarmenen aplikazio-araubide juridikoari dagokionean, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 25.2 artikuluan adierazten denez, administrazio-kontratuen prestaketa, adjudikatzea, ondorioak, aldaketa eta azkentzea lege horren eta bera garatzeko xedapenean ezarritakoaren arabera egingo dira; eta, horien ordezkotzat, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, adierazitako artikulua berariaz adierazten du 25.1.b) artikuluan aipatzen diren administrazio-kontratu berezietan (horrelakoak dira hirigintza-hitzarmenak) haien arau espezifikoak aplikatuko zaizkiela lehenbizi.

II. Administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarrietan buruzko legeriako administrazio-hitzarmenak

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko atariko tituluan (47-53 artikulua), administrazio-hitzarmenen araubide osoa garatzen da eta gutxieneko edukia, motak, iraupena eta azkentzea finkatzen dira.

Kontuan izanik aipatutako Legearen 47. artikulua, hitzarmenek honako ezaugarri hauek dituzte: 1) administrazio publikoen eta zuzenbide pribatuko subjektu baten arteko



akordioak dira, xede komun bat lortze aldera eginikoak; 2) ezin hartu ditzakete xedetzat kontratuen berezko prestazioak; eta, 3) SPKLren arabeko araubide juridikoa daukate.

Hitzarmenen iraupenari dagokionez, berriz, 40/2015 Legeko 49.h) artikulua honako hau adierazten du:

“Hitzarmenaren indarraldia, erregela hauek kontuan hartuta:

1-a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeago aurreikusten ez den arau bidez.

2-a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea”.

Aipatutako horiez gain, 40/2015 Legeko zortzigarren xedapen gehigarrian adierazten da administrazio publikoek sinatutako hitzarmenak hiru urteko epean egokitu behar direla, legea indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita (azken xedapenetako hemezortzigarrenaren arabera, 2015eko urriaren 2an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

Baina hitzarmen administratiboen epeari buruzko auzia ez da hor amaitzen, legegileak zortzigarren xedapen gehigarrian bertan ezartzen baitu 40/2015 Legea "automatikoki" egokitze beharra:

“Hala ere, hitzarmenaren indarraldiari dagokionez, automatikoki egokituko dira, 49.h).1.a artikuluan aurreikusitako erregelak zuzenean aplikatuz, indarraldirik zehaztuta ez duten hitzarmenak edo indarraldi bat zehaztuta edukita ere lege hau indarrean jartzean iraupen mugagabeko isilbidezko luzapen bat ezarrita duten hitzarmenak. Kasu horietan, hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, lege hau indarrean jartzen denetik aurrera”.

Hortaz, antzeman daitekeenez, lau urteko epea ezarri zaie Legea indarrean sartu aurretik sinatutako hitzarmenei, horien iraupena zehaztu gabe badago. Beraz, aintzat harturik orain arte adierazitakoa, esan daiteke 40/2015 Legeak, 49.h) artikulua bidez, hitzarmenen iraupena lau urtean ezartzen dela, nahiz eta jarraian zehazten den arau bidez epe luzeagoa aurreikusi ahal izango dela, eta, era berean, epe bera luzatu daitekeela beste hainbeste. Ondorioz, adieraz daiteke hitzarmenaren indarraldiaren gehieneko epea arau bidez ezarrita dagoen kasuetan, 40/2015 Legearen denbora-muga (lau urte) subsidiarioa izango dela.

III. 40/2015 Legearen aplikagarritasuna 15.2 azpiesparruko hirigintza-hitzarmenean.

Kontuan izanik aurreko puntuan adierazitakoa, beharrezkoa da zehaztea ea udalak 2008. urtean 15.2 azpiesparruko hirigintza-antolamendurako sinatutako hitzarmena 40/2015 Legeak ezarritako indarraldi-araubide mugatuaren eraginpean ote dagoen.

Honela, aintzat harturik hitzarmenaren izaerari eta azkentzearen araubide juridikoari buruz azaldutakoa, ondoriozta daiteke hitzarmena azkendutzat jotzeko zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak betetzen direla, indarraldia amaitu bai baita, eta hori hitzarmena suntsiarazteko arrazoa da, lege beraren 51. artikulua arabera.



Ez da uste beste interpretazio bat egin daitekeenik, izan ere, hirigintzako araudiak eta kontratu-araudiak ez dute epeari buruzko inolako preskripziorik ezartzen eta hitzarmenak berak ere ez; beraz, 40/2015 Legeak bete behar du hutsunea.

IV. Hirigintzako hitzarmena azkendutzat emateko prozedura abiarazteko organo eskuduna.

Plangintzako hitzarmena izanik, hitzarmena azkendutzat ematea udalbatzari dagokio, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 22.2 c. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hala ere, lehenik, prozedura abiarazi eta entzunaldi epea ireki behar da, eta hori Alkatezaren eskumena da 7/1985 Legearen 21.1.j artikuluan ezarritakoaren arabera; Tolosako Udalari dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzarrari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuaren bidez.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarra izango da organo eskuduna hirigintzako hitzarmena azkendutzat emateko prozedura abiarazteko.

AZTERKETA JURIDIKOA

Hitzarmena azkentzeko, administrazio-prozedura bat izapidetu behar da, eta interesdunari entzun egin behar zaio, ebazteko. Betebehar hori 39/2015 Legeak argi aipatzen du, adierazten baitu ezinbestekoa dela interesdunari entzunaldia ematea administrazio-egintzen bidez eta, hala, 53. artikuluan barnebiltzen da interesdunen eskubideen artean. Hori dela eta, 39/2015 Legeko 82. artikulua berriaz agintzen du ebazpena eman aurretik entzuna izateko eskubidea:

“1. Prozeduren instrukzioa amaitutakoan, eta ebazpen-proposamena idatzi aurretik, haien berri emango zaie interesdunari edo, hala badagokio, haien ordezkariari, kontuan harturik abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitako mugapenak”.

M.J.G.A., M.I.G.A., J.G.A., I.G.A., M.K.A., M.I.K.U. eta M.O.K.U. jaun-andreek edo, hala badakio, haien ordezkariak, interesdun izaera daukate (39/2015 Legea – 4.1.b) artikulua) eta, hortaz, 2008. urtean sinatutako hitzarmenaren inguruan erabakiren bat hartuz gero, nahitaezkoa da entzunaldia ematea.

Bestalde, ebazpenean beharrezkoa izango da adieraztea hirigintza-hitzarmena azkentzeak zer ondorio izango dituen. Honela, Tolosako Udalak hartutako hirigintza-konpromisoa indarrean dagoen HAPOn erabat jasota dagoenez eta 15.2 azpiesparrua benetan eraldatzeko prozesuari ekin zaionez izapidetze-fasean dagoen antolamendu xehatu berri baten bidez, adierazi behar da hiri-lurzoruko tokiko zuzkidurak lagatzeko betebeharrak onesten den antolamendu xehatuan ezarritakoak izango direla eta aprobetxamenduaren % 15eko lagapena kargarik gabea izango dela 2/2006 Legeak xedatutakoaren arabera.

Aurreko guztia ikusita, kontuan hartuz espedientean jasota dauden txosten juridikoak, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



ERABAKI DU

LEHENA.- Prozedura abiaraztea «15.2 Zubizarreta» azpiesparruaren garapenerako M.J.G.A., M.I.G.A., J.G.A., I.G.A., M.K.A., M.I.K.U. eta M.O.K.U. jaun-andreekin sinatutako hirigintzako hitzarmena, indarraldia igarotzeagatik, azkendutzat emateko.

BIGARRENA.- Hamabost eguneko entzunaldia ematea M.J.G.A., M.I.G.A., J.G.A., I.G.A., M.K.A., M.I.K.U. eta M.O.K.U. jaun-andreei edo, hala badakio, haien ordezkariari, egoki irizten diren alegazioak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA.- Adieraztea, batetik, hitzarmena azkendutzat ematearen ondorioz 15.2 azpiesparruko antolamenduko zehaztapenak gauzatzeak jarduketa integratuaren betebeharrak gisa ekarriko duela plan bereziak aurreikusten dituen hiri-lurzoruko tokiko zuzkidurak lagatzea eta, bestetik, aprobetxamenduaren % 15eko lagapena kargarik gabea izango dela 2/2006 Legeak xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA.- Erabaki horren berri ematea interesdunei eta Hirigintza Azpisailari.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2022/67 DEKRETUA: 2021/54 FAKTURA ZERRENDA ETA 2021/55 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2022/67 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2022KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hauek:

54. zenbakia duena, 11.362,72 eurokoa.

55. zenbakia duena, 654.217,88 eurokoa.



Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

54. zenbakia duena, 11.362,72 eurokoa.

55. zenbakia duena, 654.217,88 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2022/78 DEKRETUA 2021/56 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2022/78 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2022KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hau:



56. zenbakia duena, 25.326,38 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

56. zenbakia duena, 25.326,38 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2022/134 DEKRETUA 2021/57 FAKTURA ZERRENDA ETA 2021/58 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2022/134 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2022KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatua, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.



TOLOSAKO
UDALA

2022IGBA0003

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hauek:

57. zenbakia duena, 857.444,27 eurokoa.

58. zenbakia duena, 1.158,20 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

57. zenbakia duena, 857.444,27 eurokoa.

58. zenbakia duena, 1.158,20 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:35ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IGBA0003-2022-02-08 Gobernu batzarra akta/2022-02-08 Gobernu